

## Donostian, 2011ko urtarrilaren 28an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Aleman, Sagrario,  
Arejita, Adolfo,  
Coyos, Jean-Baptiste,  
Azkarate, Miren,  
Charritton, Pierre,  
Davant, Jean-Louis,  
Goenaga, Patxi,  
Haritschelhar, Jean,  
Irazu, Jose «B. Atxaga»,  
Larre, Emile,  
Salaberri, Patxi,  
Salaburu, Pello,  
Sarasola Ibon,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
Uribarren, Patxi eta  
Zalbide, Mikel

Joseba Zabaleta, kudeatzailea,  
Erramun Osa, idazkariordea,  
Mikel Gorrotxategi,

Patxi Galé,  
Alfontso Mujika,  
euskaltzain urgazleak  
zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Aurelia Arkotxak, ahala M. L. Oñederrari edo Jean-Baptiste Coyosi; Xarles Videgainek, ahala Jean Haritschelharri; Miren Lourdes Oñederrak, ahala A. Arkotxari; Beñat Oihartzabalek, ahala A. Arkotxari edo J. Haritschelharri; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10,06etan hasi da Donostiako Diputazioaren Jauregian, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

**1. Aurreko akta onartzea.** A. Iñigok ohar batzuk egin ditu abenduko batzarraren aktaz, toponimo batzuen formaz, eta J.L. Lizundiak estilo-ohar batzuk helarazi dizkio ahoz. Idazkariak horiek kontuan hartu ditu. Horrela, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

## 2. Hasi aurrekoak.

### 2.1. Vahan Sarkisian-en heriotza.

Exonomastika batzordeko burua den J.L. Lizundiak Vahan Sarkisian armeniar euskaltzain ohorezkoaren heriotzaren berri eman du. Idazkariak azaldu duenez, Arevik-ek, haren alabak, e-maila bidali du, hartan jakinaraziz Sarkisian jauna, 55 urte zituela aurtengo urtarrilaren 21ean hil zela, bihotzekoak jota. Euskaltzaindiak bere familiari doluminak bidali dizkio.

**2.2. Hilberri-txostenak.** A. Urrutia euskaltzainburuak azaldu duenez, gaur, ohiko batzarraren ondoan, eguerdiko 12etan egingo den ageriko bilkuran, Jorge Cortes Izal euskaltzain urgazlearen eta Xabier Lete Bergaretxe ohorezko euskaltzainaren hilberri-txostenak irakurriko dira. Lehena, Patxi Zabaleta euskaltzainak presatua, Sagrario Aleman euskaltzainak irakurriko du. Bigarrena Jose Angel Irigarai ohorezko euskaltzainak irakurriko du.

## 3. Onomastika.

### 3.1. «Euskal Herriko ibaien izenak» Ebrora doazen euskal ibaiak. 4. zerrenda onartzea.

Andres Iñigok jaso eta komentatu ditu, oro har. Ondoren, Patxi Galék, horiek kontuan hartu eta behar diren kontsultak eginda, honako azalpen hauek eman ditu:

**Urtxuria** dela eta, dirudienez, *-a* gabea da.

**Egurgi** hidronimoaz, M. Azkarate, P. Xarritonek eta Iñaki Caminok egindako oharrak ikusita, Aezkoan **Egurgio** (eta ez **Egurgoa**) delako ondoriora heldu da.

**Sorogaingo erreka** izenaren tokian **Erro** jarri da. Ontzat eman da. P. Salaberrik, forma ikusita, hidronimoa **Xuringo** ez baina **Xubingoa** ez ote den galdetu du. Bildu diren datuen arabera **Xuringoa** dela erantzun zaio.

**Gurpegiko erreka** izena dela eta, A. Iñigok, hangoen lekukotasuna jaso ondoren, forma hori berretsi du. P. Salaberrik oharrak egin ditu **Egúrzanos** eta **Cerréncanos** moduko azken *-s* horiez.

P. Goenagak **la Foz de...** bezalako forma generiko horiek ere ez ote liratekeen euskaraz jarri behar galdetu du. Taldekoak oharrak konforme daude, baina lekukotasunik gabe, izenok aldatzera ez direla ausartu adierazi dute. Gai berari ekinez, P. Salaburuk galdera batzuk egin ditu **Foz de Benasa** bezalako generiko batzuk erdaraz mantentzeagatik. Patxi Salaberri, P. Salaburu, I. Sarasola eta A. Arejita

ere toponimo batzuen izen generiko horiek euskaratzearen alde agertu dira. P. Galék eta A. Iñigok gogorarazi dute euskal izenik erabili ez denetan, **Monte Perdidó** eta abarretan, ez itzultzea erabaki zela. P. Goenagak **Benasa** hutsa proposatu du, eta hola utzi da.

**3.2. Euskal Herriko ibaien izenak (VII zerrenda aurkeztea) Argarainoko ibaiak.** Taldekoek zalantzak ekarri dituzte, kasu batzuetan bilduriko informazio lokala gehiegizkoa izan da eta. Horrela, adibidez, **Bizkaia** izena inoiz nahasgarria gertatzen da, eta maiz agertzen da. P. Galék kasu ezberdinak azaldu ditu. Horrela, **Baluso** eta **Armillos** errekek inoiz **Bizkaia** izena hartzen dute. **Indusi/Induxi, Arizpeleta/Arizpildueta/Ezpeleta** zalantzak ere aipatu ditu. P. Salaberri **Valcerbera** eta **Indusi-z** (eta ez **Induxi**) mintzatu da. J.L. Lizundiak, aldiz, **Bizkaia** toponimoa dela eta, oharra egin du, hitzaren hedadura eta esangura zaharra azaltzeko. P. Galék badaki izen bereko beste eskualde hori non den, baina hortik urrun xamar gelditzen omen da. Leatxen ere bada izen bereko beste leku bat. Halakoetan «**Bizkai**»k «mendi edo bizkar» esan nahi izaten du. P. Salaburuk bere kezka azaldu du, euskal toponimo asko, premiarik gabe, ez ote ditugun erdal forma gordinegian onartzen salatuz. Bestetik, ohiko erabiltzaileen hizkuntzaren muga aipatu du P. Salaberrik. Oharrak otsailaren 14rako bidali beharko dira.

#### 4. Exonomastika.

**4.1. Exonomastika. «Ekialde hurbila (II). Georgiako exonimoak» zerrenda onartzea.** J.L. Lizundiak, hitza hartu eta proposamenari ez zaiola oharririk egin azaldu du. Beraz, Georgiako letraldatzeta-eta eta exonimoak ontzat eman dira.

**4.2. Exonomastika. «Ekialde hurbila (III). Armeniako exonimoak» zerrenda aurkeztea.**

J.L. Lizundiak hitza Alfonso Mujikari eman dio, Armeniako alfabetoa eta berori euskarara letraldatzeko irizpideak azal ditzan. A. Mujikak, paperean aurkezturiko dokumentuak banatu ditu. Hor oinarriturik, armeniera idatzi klasiko eta modernoaren aldaki nagusien historia laburra egin du. Gaur egun bi armeniar dialekto mintzatzen dira, biak berdin idatzi arren. Bietako bat, mendebaldeko armeniera, Armeniako Errepublikatik kanpo erabiltzen da (Turkian, Israelen eta diasporan), eta gaur erabat galtzeko arriskuan aurkitzen da (50.000 hiztun inguru besterik ez). Horregatik, Erdi Aroko antzinako armeniera klasikoa liturgian besterik erabiltzen ez denez gero, Euskaltzaindira ekartzen den proposamena, armeniera modernoaren transkripzio sinplifikatua da, batez ere dibulgazioari begira, bertako geografia eta pertsonen izenak euskarara aldatu nahi direnean erabiltzekoa. Hor, J.L. Lizundiak

azpimarratu duenez, hiri nagusiak, leku historiko eta gatazkatsuak, zein pertsonaia famatuen izen-deiturak sartzen dira.

Oharrak otsailaren 14rako bidali behar direla gogoratu du.

Duela bi hilabete, taldearen izenean, X. Kintanak Vahan Sarkisian euskaltzain ohorezkoari armenieratik euskarara izenak eta transkribatzeko proposamena helarazi zion, eta erantzunez igorri zuen ohar labur batean, oro har bere adostasuna eman zuen, testua astiroago aztertu ondoan, agian ohartxoren bat egingo zuela aginduz. Zoritxarrez, hori egin baino lehenago eraman du herioak.

### 5. Mintzola fundazioaz.

Euskaltzaindian argitalpen eta kultura taldeek egiten duten lana ezagutzeko bidean, Josune Zabala, Mintzola Fundazioaren zuzendaria, Akademiara etorri da, elkarte horren izaera eta lana azaltzeko.

Mintzola 2008ko udaberrian eratu zen, besteak beste, euskararen ahozko tradizioaren ikergunea izateko asmoz. Sortzaileen artean Gipuzkoako Kutxa, EHU, Bertsozale Elkarte eta Gipuzkoako Diputazioa aurkitzen dira. Euskaltzaindiarekin ere, elkarlanerako hitzarmen bat sinaturik daukatela gogorarazi du.

Mintzolaren helburua, oro har, gaurko euskal gizarteak hizkuntza eta kultura arloan dituen premia berriei erantzutea da. Horretarako oinarritzko ikerketa jorratzen du, tesi eta artikulugintzaren bitartez. Horrez gainera, ikerketa aplikatua ere badarabil, gizartearen beharrezanezi begira.

Fundazioaren erabakigune nagusia Patronatua da. Lan egiteko, batzordetan banaturik dago. Garrantzi handia eskaini dio dokumentazioari, eta ahozko generoak (bertso, kantua eta antzerkiak, adibidez) bildu, gorde eta ezagutarazi nahi litzuke.

Era berean, beste erakundeekin batera lan egiteko prest dago, eta ahalegin ezberdinen elkargune izan nahi luke, adibidez Euskaltzaindiarekin, udalekin eta beste zenbait erakunderekin ere bai. Orain arte jorratu dituzten arloak xeheki azaldu ditu Josune Zabalak: ahozkotasuna genero-ikuspegitik arakatu, Zumaian eta Azpeitian gazteen arteko hitanoaren erabilera aztertu, bai eta formazio-ikastaroak eman ere. Etorkizunari begira, aurrera segi eta ikerketetan sakontzea da Mintzolaren nahia. Ikerketa-bekak sortzeko proiektua ere badute.

Euskaltzainburuak Mintzolaren emaitza aipagarrien artean, irakaskuntza mundutik datozen ikasleak trebatzeko laguntza azpimarratu du, testuinguru formal eta informaletan egoki mintzatzeko. Bukaeran A. Urrutiak, Euskaltzaindiaren izenean, Josune Zabala andreari eskerrak eman dizkio.

## 6. Eskuaratekoak:

**6.1. Aurrekontuen berri.** Jose Luis Lizundia diruzainak hitza harturik, Euskaltzaindiaren aurrekontua, PP alderdiak egindako zuzenketaren ondorioz, 140.000 eurotan gehitu dela azaldu du. Horren ondorioz, Joseba Zabaleta kudeatzaileak azaldu duenez, proiektuetan lehenago aurreikusten zen % 30etik % 19ra jaitsi dira murrizketak.

**6.2. Kultura Sailaren eskariari erantzunez.** Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak Euskaltzaindiari eskari bat igorri dio, berari atxikita dagoen **Euskararen Aholku Batzordeko** atal bereziak diren **Terminologia** eta **Toponimia Batzorde**etarako ordezkari bana izenda ditzan. Euskaltzaindiak Terminologiarako Andoni Sagarna euskaltzaina eta Toponimiarako Mikel Gorrotxategi euskaltzain urgazlea izendatzea erabaki du.

**6.3. Legebiltzarreko «Jalgi hadi plazara» erakusketa.** Eusko Legebiltzarrak antolaturik, aurtengo **otsailaren 1ean**, Euskal Parlamentuaren **Gasteizko egoitzan, goizeko 10etan**, «Jalgi hadi plazara» izeneko erakusketari emango zaio hasiera, Legebiltzarreko burua den Arantza Quiroga andrearen eta parlamentari batzuen partaidetasunaz. Erakusketa hori antolatzeko laguntza teknikoa Euskaltzaindiari eskatu zaio, eta horretarako komisario gisa, X. Kintana idazkaria izendatu da, Pruden Gartzia Euskaltzaindiaren Biblioteka-buruaren laguntza izan duena. Erakusketan Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* izango da, Parisko Biblioteka Nazionalaren kortesiari esker erakustaldi honetarako bereziki ekarria, eta Joanes Leizarragaren 1571ko Testamentu Berria, Euskaltzaindiaren Bibliotekak utzia. Era berean, Pizkunde eta Protestantismo giroko euskal eta erdal liburu batzuk izango dira erakusgai, herri hizkuntzen literaturaren hasieran Bibliaren itzulpenak izandako garrantzia azpimarratuz. Erakusketak otsailaren hasieratik martxoa bukatu arte iraungo du, jende guztientzat irekirik.

**6.4. Osoko batzarra Bilbon.** Amaitzean, Euskaltzaindiaren otsaileko biltzarra, Bilbon izango dela gogorarazi da, otsailaren 25ean, ohi bezala, goizeko 10etan.

Batzarra 12etan amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Donostian, 2011ko urtarrilaren 28an

JORGE CORTES IZAL (Otsagabia, 1930; Iruña 2010) eta XABIER LETE (Oiartzun, 1944; Donostia, 2010) GOGOAN

Donostian, 2011ko urtarrilaren 28an, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, eguerdiko 12:00etan, Euskaltzaindiak aurreko urtean hil diren Jorge Cortes Izal euskaltzain urgazlearen eta Xabier Lete ohorezko euskaltzainaren hilberri-txostenak irakurtzeko Ageriko bilkura egin du.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Baptiste Coyos, Pierre Charriton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Jose «B. Atxaga» Irazu, Emile Larre, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Joseba Intxausti eta Koldo Artola

Euskaltzain urgazleak: M<sup>a</sup> Pilar Lasarte, Jazinto Fernandorena eta Patri Urkizu.

Joseba Zabaleta kudeatzailea eta Erramun Osa idazkariordea.

Euskaltzaindiko langileak: Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Andres Urrutia euskaltzainburuak ekitaldiaren nondik-norakoa aurkeztu du. Era berean, aurreko urtean hil diren Jorge Cortes Izal eta Xabier Lete gogoan hartu ditu eta bakoitzak bere arloan egindako ekarpena nabarmendu du.

*Euskera*. 2011, 56, 1-2. 95-174. Bilbo  
ISSN 0210-1564

Ondoren, Patxi Zabaletak bilkurara etortzerik izan ez duenez gero, Sagrario Alemanek Jorge Cortes Izal (1930-2010) euskaltzain urgazleri buruz Patxi Zabaletak eginiko hilberri-txostena irakurri du.

Jorge Cortes Izalen ibilbidea gogora ekarri du Patxi Zabaletak, Sagrario Alemanen ahotsaren bitartez. Nafarroan egindako lanaz hitz egin du, euskal kulturaren eta euskararen alde, eta ikastolen sorrera prozesuan buruturiko lanaz, hain zuzen.

Iruñean, 1963an egin zituzten Nafarroako lehenengo ikastola zabaltzeko ahaleginak, baina ekimenak ez zuen aurrera egin, eta handik bi urtera, 1965ean, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak, zeinen kide Jorge Cortes Izal zen, ikastola bat eratu zuen, eskusiboki bertako kideen seme-alabentzat. Hasieran Nuestra Señora de Ujué izena zeraman, baina gero Paz de Ziganda izatera pasa zen. Baina Elkarteak zatitu egin zen, eta Jorge Cortesen gidaritzapean San Fermin ikastola sortzeari ekin zioten. Ikastola horren buru ere izan zen hainbat urtez, gurasoek hautatua eta ikastola honetako lehenbiziko ikasleetakoak izan ziren bere semeak. Laster zabaldu zuten ikastolen mugimendua Nafarroa osora.

Nafarroako Diputazioaren Príncipe de Viana erakundeko «Fomento del Vasuence» sailean parte zuzena izan zuen, euskararen sustatze lanetan eta erakundearen izena zeraman aldizkariaren euskarazko gehigarrian batik bat. Euskal Herria Irratiaren sortzaileetarikoa dugu.

1969ko azaroaren 28an, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen.

Cortes «kanpionianoa» zela dio Zabaletak, «euskararekiko ikazgilearen atxikimendukoa, Otsagabia herria eta Zaraitzu harana beti gogoan eta kezkatzen zituena, Euskal Herria den gizartean nortasun agiriak –tituluak– Nafarroaren baitan ikusten zituena».

Azkenean, Alemanen ahotsez, hauxe aitortu du Zabaletak: «Lagun bat edo hurbileko bat hiltzen denean, maiz guregan sortzen den sentimendua izaten da: esan behar genizkion edo galdetu behar genizkion hainbeste eta hainbeste gauza, ezin izanen dizkiogula gehiago galdetu. Beranduegi egin zaigula». Hori dela eta, Sagrario Alemanek Zabaletaren beraren «Berandua beti beranduegi da» poema errezitatu du. Hauek dira azken bertsoak: «Beranduaren itzulezinak min dagit, min garratza deragit, joandako denborak etsipenaren arantza sartzen baitit, berandu da eta berandua berez da beti, beranduegi!».

Horren ostean, Xabier Lete (1944-2010) ohorezko euskaltzainari buruzko hilberri-txostena Jose Angel Irigarai ohorezko euskaltzainak irakurri du.

Xabier Lete idazle, poeta eta kantaria, *Ez Dok Amairu* taldeko kide izan zen. Bederatzi disko kaleratu zituen, eta zazpi olerki liburu, azkena *Eguntsentiaren Esku Ixoztuak* izenekoak. Euskal kulturaren erreferente argia. Txostena irakurtzeaz gain, Jose Angel Irigaraik Leteren poema batzuk irakurri ditu, Joxan Goikoetxearen musikak lagunduta.

Xabier Lete zena gogorarazteko, honela mintzatu da Jose Angel Irigarai: «Ezaguna da Xabier Leteren ibilbide oparoa, bai poesian bai kantagintzan; batean zein bestean nabarmendu zuen dohai berezia. Bakan da gauzatzen gure hizkuntzaren bizitasun osasungarria hain manera eraginkorrean. Baiki, Oiartzunen ongi errotua, ahozotasun eta herri kulturaren –eta hor, Lekuonatarren itzala aipatu behar da, bereziki Juan Marirena– eta, gisa berean, gogoia irekia, munduan kokatua –ingurukoa eta urrutikoa–, biak propioki uztartuz jardundakoa izan da bizitzan, sorkuntzan. Haren poema eta kantuetan momentu berean da herri hizkuntza bizia sentitzen eta hizkuntza jaso gozatzeko, existentziaren drama eta ironia, euskaldunaren eta giza aberearen poz eta mina, patua, egunorokoari datzekionak eta amasa handiko metaforak. Lurrari atxikia eta lau hai-zeetarabazabaldia, poetak inoiz ez du ikuspegia galtzen, non dagoen eta nondik duen kantatzen, bertatik bertara eta mundu guztian gaindi. Horrela dira haren kantu-poemak ekibegiko lurtean txertatzen, hemen eta unibertsal aireen oihartzunean».

Leteren kantak eta poemak ekarri ditu gogora –batean zein bestean nabarmendu zuen dohai berezia–. Leteren sentsibilitateaz hitz egin du, haren indarraz, zeukan umoreaz, erakusten zituen minez eta gugan sortzen zuen zirrarez... Azkenean honela amaitu du Irigarai: «Poesiak gure baitan legokeen hondo ilun batera garamatza, eta nerretzat oso zaila izan da beti poesia argitsua eta baikorra idaztea... Beraz, poesia melankoliaren hizkerak dira, izpirituaren afekzioak...», dio Letek. Eta puska handi batean, halakoa da harena, baina, ene aburuz, herren gelditzen da baieztapena, ez bada kontuan hartzen haren sorkuntzan eta bizitzan umoreak duen munta; bere buruaz trufatzeko eta beste hainbat gai ironiz tratatzeko umore fin edota zirtolaria, bizigarria. Nago horrek osagarria den amasa ekarri izan diola beti, poesian eta bizitzan. Irri ez bada, beraz, dugun gutienez kanta eta goza haren poesia eta kantuekin, dugun topa eginez jorra sorkuntzaren mentura, bizi-larrimina poesia, aterbe eta hats-iturri, bilaka dadin».

Bernado Atxagak ere parte hartu du omenaldian, testu bat irakurriz. Leteren *Otsoa eta Txanogorritxu* kanta ezaguna hartu, eta otsoaren figurarekin jolasean ibili da Atxaga, Oiartzungo poetaren omenez. Bernardo Atxagaren hitzen ostean, *Xalbadorren heriotza* kanta kantatu dute hurreratu diren guztiek, musikak lagundurik, une hunkigarria gertatuz.



Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzekin bukatu da ageriko bilkura, eguerdiko 13:30ean, ekitaldian zehar gogora ekarritako pertsoneri egin dakiekeen gorazarre onena, omenaldirik ederrena euskararen eta euskal kulturaren zabalkundearekin jarraitzea dela azpimarratuz.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria